


Pentsamenduaren poesia Poesía del pensamiento

Musikaz lagundutako poesia errezitaldia
Recital de poesía con música
Azaroa 17 Noviembre • 19:30
Victoria Eugenia Club (Plaza Okendo plaza)

dk
Literatura



GIPUZKOAKO
LIBURUTEGIEN
ELKARTEA



GREMIO
DE LIBREROS DE
GIPUZKOA



www.donostiakultura.com

Pentsamenduaren poesia, musikaz lagundutako errezitaldia, azaroaren 17an Victoria Eugenia Clubean

Juan Carlos Mestre, Juan Kruz Igerabide, Gerardo Markuleta, Tere Irastorza, Felipe Juaristi eta Juan Ramon Makuso poetek, **Francisco Herrero**ren bibolin-jolearen laguntzaz, *Pentsamenduaren poesia* musikaz lagundutako errezitaldia eskainiko dute Victoria Eugenia Clubean (sarrera, Okendo plazatik) **azaroaren 17an, arratsaldeko 19:30ean**.

Ekitaldia puntako idazleak Donostiako liburutegi eta kultur etxetara irakurleei hurbiltzeko urtean zehar abian den **DK Literatura** programan kokatzen da, **Donostia Kulturak, Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak** eta **El Diario Vascoren Aula de Culturak** antolatutakoa.

Honekin batera duzue ekitaldi honen inguruan plazaratutako manifestua.

Poesía del pensamiento: recital el 17 de noviembre en el Victoria Eugenia Club

Los poetas **Juan Carlos Mestre, Juan Kruz Igerabide, Gerardo Markuleta, Tere Irastorza, Felipe Juaristi y Juan Ramon Makuso**, acompañados del violinista **Francisco Herrero**, ofrecerán un recital (*Poesía del pensamiento*) en el **Victoria Eugenia Club** (entrada por la plaza Okendo) el próximo **17 de noviembre**, a las **19:30** horas.

Esta actividad se enmarca en el programa **DK LITERATURA**, ciclo organizado por **Donostia Kultura**, el **Gremio de Libreros de Gipuzkoa** y el **Aula de Cultura de El Diario Vasco**. El objetivo del programa consiste en acercar a escritores punteros a los y las lectores donostiarras a través de las bibliotecas y de los centros culturales de la ciudad.

Adjuntamos el manifiesto que se ha hecho público con motivo de esta actividad.

POIESIS: zerizanerako pausoa

Hasieratik izan zen mundua aldatu eta hari luzapena ematea, pentsamendua materia eta denborarekin lotzea; gizakia, munduarekin. Sortu. Geuk sortu, eta ariketa horren bidez gu sortu, haragi-hezurrez haratago. Edonola ere, gizakiak ezin du ez deusetik sortu. Ez deusa, ez da. Haatik, gizakiak badu berezko gaitasun bat: oroimena, hain zuzen. Oroimenetik sortzen da esperientzia. Platonek, “Oturuntza” dialogoan *poiesis* edo sorkuntzari buruz ari denean, Diotimaren ahotan jartzen du definizioa: *ez izatetik izatera garamatzen ezain kausari sorkuntza deritzo*. Baina bereizketa bat egiten du hurrena: arte guztietan egindako sorkuntza-lanen egileak *poietai* izango lirateke, hau da, sortzaile. “Baina badakizu”, dio Diotimak, “ez direla hala deitzen, beste izen batzuekin baizik; izan ere, musika eta olerkia sorkuntzaren multzotik banandu egin dira eta multzo osoaren izenarekin dira ezagun. Horri bakarrik deritzo *poiesis* eta *poietai*, sorkuntza arlo horien jabe diren gutxi haiei.

Poesia, beraz, zerbait berreskuratzea da, zerbait argitara ateratzea, zerbaiten izatea hitzen bidez ezagutzera ematea, erritmo lege jakin batzuei utsiz. Ez da nahikoa hitza; erritmo legeak ezin dira bazter utzi. Esatea eta nola esaten den, alegia. Stravinskyk adibide bat jartzen zuen bere “Musikaren poetika”n hori ulertzeko: txorien txorrotxioa ez da musika, soinua baizik. Soinuaren elementuek, berez, ez dute musika sortzen. Haien antolatzea ezinbestekoa da, eta hori gizakiaren ekintza kontzientetik dator. Izan ere, sentimendu edo gogoeta hutsek ez dute bere horretan poesia eraten. Badira poetikotasun bat lortzen duten irudi gordinak, baina sentiberatasuna eta poesia ez dira gauza bera. Lotura egon badago, baina txoriaren kasuan bezala, barru-barrutik aterata ere, sentimendua soinu bat besterik ez da, baina ez musika. Errazkerian ez erortzeko antolaketa kontziente bat behar da, poetika bat. Poetaren lanabesa, alegia: arrazoiaren bitartez sentimendua atxikitzea, eta aldi berean, sentimenduz arrazoa transmititzea.

Arestian esan bezala, horixe da sorkuntza, ilunetik argirako pausoa. Horra, artea, materia antolatzeko bultzada, infinitura begira jarria, giza-katearen transzendentzia izpiritual batean oinarritua. Zerizanen bilaketa, eta ez itxurarena. Horra artea, bokazio aldatzaile baten abiapuntua. Edo bestela esanda, gure barruko hariak kanpoko hariekin harremanetan jarri eta ezagutzara iristea, atzoko eta gaurko kontuak elkarren artean hizketan jarritz. Atzokoak gaurkoaren argitan, gaurkoak atzokoarenean. Finean, gaur eta hemen idazten dugu, baina ez gara orainaldi soila. Gizakiak gizakiarekin duen elkarrizketa luzearen haria besterik ez gara.

(Aritz Gorrotxategi, Felipe Juaristi, Juan Ramón Makuso eta Pello Otxoteko)

POIESIS: un paso a la esencia

Desde el comienzo se ha intentado cambiar el mundo y darle continuidad; unir el pensamiento con la materia y el tiempo; al hombre con el mundo. Crear. Crear y, mediante el ejercicio de la creación, crearnos, más allá de la propia carnalidad. De todos modos, el hombre no puede crear desde la nada. Lo que no es hace tiempo que dejó de ser. Por ello, tiene el hombre una característica que le es propia: la memoria. La experiencia nace de la memoria. Platón en el diálogo titulado *El banquete*, hablando sobre la *poiesis* o creación, pone en boca de Diótima el dictado: “toda causa que haga pasar cualquier cosa del no ser al ser se llama creación”. Pero apunta una particularidad: “de suerte que también los trabajos realizados en todas las artes son creaciones y los artífices de éstas son todos *poietai*, o sea creadores...”. Pero también sabes”, continúa Diótima, “que no se llaman *poieitai*, sino que tienen otros nombres y que del conjunto entero de la creación se ha separado una parte, la concerniente a la música y al verso, y se le denomina con el nombre de todo. Únicamente a esto se llama, en efecto *poiesis* y *poietai* a los que poseen esta porción de creación”.

Poesía es, por tanto, el intento de recuperar algo, el paso que nos lleva desde la oscuridad hasta la claridad, el de algo que es dado a conocer a través de la palabra, basándose en unas leyes de composición conocidas. Decir no es suficiente, hay que saber decir. Stravinsky nos ilustra con un ejemplo en su *Poética de la música*: “el trino de las aves canoras no es música, sino sonido”. Los elementos musicales no crean, por sí mismos, música. Es imprescindible su organización, y ello se derivará de la acción consciente del hombre. Los sentimientos o pensamientos, por puros que sean, no crean poesía. Hay imágenes crudas que sugieren la existencia de alguna poética, pero sensibilidad no es lo mismo que poesía. Están unidas, pero como en el caso del ave canora, aunque surjan del profundo interior, el sentimiento no es más que sonido, no música. Hace falta una organización consciente para no caer en la vulgaridad, una poética. Corresponde al poeta aprehender sentimiento por medio de la razón, y transmitir razón por medio del sentimiento.

Tal es el secreto de la creación, el paso que va desde la oscuridad hasta la claridad. He ahí el arte, el impulso para organizar la materia, puesta la mirada en el infinito, basada en la trascendencia espiritual humana. La búsqueda de la esencia y no de la apariencia. He ahí el arte, punto de partida de cualquier intento transformador. Dicho de otro modo, nuestros hilos enlazados a otros y dados a conocer. diálogo entre lo antiguo y lo nuevo. El mundo de ayer adivinado bajo la luz actual, y el de hoy bajo la de ayer. Porque escribimos aquí y ahora, pero no sólo somos presente. Tan sólo hilos de un largo diálogo del hombre con el hombre.

Aritz Gorrotxategi, Felipe Juaristi, Juan Ramón Makuso, Pello Otxoteko.